



KULTUR ETXEA



LEGAZPIKO UDALA
Kultura Saila

LATXARTEGI ARETOAREN ERABILERA ARAUAK COVIDaren ONDORIOZKO LARRIALDI SANITARIOA AMAITU ONDOREN

- 1.- Latxartegi Aretoa erabili ahal izateko dagokion instantzia orria bete beharko da, eguna eta ordua kultura teknikariarekin hitzartu ondoren (Aretoa libre dagoen ala ez ziurtatzeko). Eskaria gutxienez 15 egun aurretik egin beharko da.
- 2.- Eskaria egiten duen talde, elkarte edo erakundea Legazpiko Udaleko Batzorde edo lan-talderen bateko partaide bada, ez du dagokion alokairu tasarik ordaindu beharko.
- 3.- Aretoak duen ekipamendua erabili ahal izango da, baina ekitaldia burutzeko beste ezer beharko balitz eskaria egiten duen taldearen ardura izango da.
- 4.- Aretoaren erabileran gertatu daitekeen edozein hondatze, material desagertze, e.a., ekitaldia antolatu duen taldearen erantzukizuna izango da.
- 5.- Ekitaldia burutzeko egin beharreko muntaia, desmuntaia eta material garraioak eskatzaileak egin beharko ditu.
- 6.- Ekitaldia burutu aurretik entsegurik edo egin behar bada, eskarian aurreikusi beharko da eta ekitaldia baino astebete lehenago gutxienez hitzartu beharko dira egun eta orduak kultura zerbitzuarekin. Entseguetan ezingo da azpiegitura teknikorik erabili.

7.- COVID-19: Larrialdi danitarioko egoera amaitu arren NEURRI HAUEK HARTU ETA BETETZEN DIRELA ZAINDU BEHARKO DU ESKATZAILEAK:

Edukiera: azken dekretuak dioenez **baimendutako edukieraren % 100a ezarriko da berriz ere:**

Besaulki-patioak 295 lagunentzako lekua du, 2 pertsona minusbaliatu barne

Palkoak: bakoitzean 8, guztira 16. Besaulki patioa beteko balitz bakarrik erabiliko dira.

Arreta berezia jarri beharko zaie sartzeko eta irtetzeko protokoloei, batez ere edukiera handiena dutenean.

Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantentzen saiatu beharko da eta ezin denean, higie-ne neurriak indartu beharko dira eta

NORMAS DE USO DE LATXARTEGI ARETOA TRAS EL FIN DE LA ALARMA SANITARIA DEBIDA AL COVID

- 1.- Para poder hacer uso de Latxartegi Aretoa se deberá cumplimentar la instancia correspondiente, previo acuerdo de fecha y hora con la técnico de cultura (para comprobar si la Sala está libre o no). La solicitud deberá realizarse con una antelación mínima de 15 días.
- 2.- Cuando el grupo, asociación o entidad solicitante forme parte de alguna de las Comisiones o Grupos de Trabajo del Ayuntamiento de Legazpi, estará exento del pago de la tasa de alquiler correspondiente.
- 3.- Se podrá utilizar el equipamiento de que disponga la sala, pero en caso de que hiciera falta algo más la entidad solicitante será la encargada de conseguirlo.
- 4.- Cualquier deterioro, desaparición de material, etc. que pueda producirse en el uso de la sala será responsabilidad del grupo organizador del evento.
- 5.- Los montajes, desmontajes y transportes de material necesarios para la realización del evento deberán ser realizados por el solicitante.
- 6.- En caso de ser necesario ensayar antes de la celebración del evento, deberá preverse en la solicitud y pactar con el técnico de cultura los días y horas con una antelación mínima de una semana. En los ensayos no se podrán utilizar infraestructuras técnicas de la sala.
- 7.- **El solicitante deberá velar por la adopción y cumplimiento de las siguientes medidas a pesar del fin da la alarma sanitaria debida al COVID-19:**

Aforo: el último decreto establece que se volverá a establecer el **100% del aforo autorizado:**

El patio de butacas tiene capacidad para 295 personas, incluidas 2 personas con discapacidad.

Palcos: 8 por cada uno, en total 16. Sólo se utilizarán si se llenara el patio de butacas.

Habrà que prestar especial atención a los protocolos de entrada y de hehecho, especialmente cuando tengan mayor aforo.

Se procurará mantener la distancia interpersonal de 1,5 metros y cuando no sea posible, se deberán reforzar las medidas de higiene y, en todo caso, se mantendrá la máxima distancia posible entre las personas.

El **uso obligatorio de mascarilla** en todo momento,

LEGAZPIKO KULTUR ETXEA

Latxartegi, 3 • 20230 LEGAZPI • GIPUZKOA • Tel. 943 73 72 02 • Faxe 943 73 71 61
www.legazpiko-udala.eus • email: kultura @legazpi.eus



KULTUR ETXEA



LEGAZPIKO
UDALA Kultura Saila

nolanahi ere, ahalik eta distantziarik handiena mantenduko da pertsonen artean.

Maskara erabiltzea **nahitaezkoa** une oro, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantziari eutsi.

Debekatuta dago barrura **janariarekin** eta/edo **edariarekin** sartzea eta kontsumitzea.

Ekitaldi bakoitzaren ondoren aretoa garbitu eta desinfektatu egingo du Udalak, baina **desinfekzio gastuak eskatzaileak ordaindu beharko ditu.**

8.- Aretoaren eskatzailea izango da arau hauek bete dadin beharrezko neurriak hartuko dituen, eta hala egingo ez balitz bere erantzukizuna izango da eta horrek ekar ditzakeen ondorioak bere gain hartuko ditu. Halaber, aurreko puntuetan jasotakoak beteko ez balira, behar diren neurriak hartuko lirateke eta aurrerantzean aretoaren erabilera ukatu ahal izango zaio eskatzaileari.

aunque se mantenga la distancia de seguridad interpersonal.

Se prohíbe el acceso y consumo de **alimentos y/o bebidas.**

Tras cada acto la sala será limpiada y desinfectada por el Ayuntamiento, aunque **los gastos de desinfección correrán a cargo del solicitante.**

8.- El solicitante de la sala será el responsable de adoptar las medidas necesarias para el cumplimiento de estas normas, asumiendo en caso contrario su responsabilidad y las consecuencias que de ello pudieran derivarse. Asimismo, en caso de incumplimiento de los puntos anteriores, se tomarían las medidas oportunas y en adelante se podrá denegar el uso de la sala al solicitante.

Legazpin, 2021eko urriaren 7an.